

## Xedapen Orokorrak

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2221

AGINDUA, 2009ko apirilaren 1ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Honen bidez, ikastetxeetako teknologia-heldutasunaren eredu finkatzen da eta ikastetxeek IKT arloan duten heldutasuna egiaztatzeko ziurtagiria nahiz zigiluak onartzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta European Software Institute Fundazioaren arteko lankidetzaz hitzarmena aplikatu ondoren, jardura-esparru globala garatzeko lanei ekin zitzaizkien, baita Euskal Hezkuntza Sistemaren «ikastetxeetako teknologia-heldutasunaren eredu» diseinatzeke eta ezartzeko lanei ere. Lan horiek bukatu egin dira ikastetxeetako teknologia-heldutasunaren eredu ematearekin batera.

Teknologia-heldutasunaren eredu, teknologia-baliabideen kopuruaz eta kalitateaz gain, honako ezaugarri hauek hartu dira kontuan:

- Ikasleen gaitasuna eta inplikazioa Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan (IKT), pertsona batek ez baitu sekula bere denboraren zati handiena prestakuntzan ematen, eta prestakuntzak ez baititu sekula hartzen hain oinarritzakoak diren ikasgaiak.

- Irakasleen gaitasuna. IKT ikastetxeetan, irakasleak eman behar dizkio ikasleari ezagutza eta trebezia berriak sortzeko baliabide nahiz tresnak. Ikasteko esparru berri horietatik eratorrita, beste funtzio eta profil batzuk agertu dira: IKT tresnak erabiltzen dituzten irakasleak, urruneko tutoreak, on-line aholkulariak, urruneko prestakuntza-plataformetarako edukiak lantzen dituzten irakasleak, zentroetako IKTren dinamizatzaileak, eta abar. Adierazle ona da profil horiei lotutako ezagutzak egiaztatzea, heldutasun teknologikoaren eredu jaso-tako mailetara moldatutako egiaztatze-proba egokiak baliatuz.

- Hezkuntza-komunitateko gainerako eragileen inplikazioa (gurasoak, udala, enpresak, eta abar). Hezkuntza-prozesuaren ikuskera berri bati jarraitzea da helburua.

Hezkuntza-prozesuko eragileen parte-hartzeak maila bakoitzean izan ditzakeen graduak nahiz gradu horiek egiaztatzeko erak definitzen ditu ereduak, beharrezkoak baitira bikaintasuna erdieste aldera.

Ikastetxeetako teknologia-heldutasunaren eredu onetsita, agindu honek zehaztuko ditu Euskal Hezkun-

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

2221

ORDEN de 1 de abril de 2009, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se aprueba el Modelo de Madurez Tecnológica de Centro Educativo y se establecen las certificaciones y sellos acreditativos de los diferentes niveles de Madurez TIC de los Centros Educativos.

El trabajo realizado en aplicación del Convenio de Colaboración entre la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y la Fundación European Software Institute para desarrollar un marco global de actuaciones tendentes al diseño e implantación del «modelo de madurez tecnológica de centro educativo» en el Sistema Educativo Vasco, ha finalizado con la entrega del Modelo de Madurez Tecnológica de Centro Educativo.

El Modelo de Madurez Tecnológica, además de la cantidad y calidad de los recursos tecnológicos, ha tenido en cuenta:

- La implicación del alumnado y su capacitación en Tecnologías de la Información y la Comunicación (TIC), ya que nunca una persona dedicará a la formación una parte mayor de su tiempo, ni la formación abarcará materias tan básicas.

- La capacitación del profesorado, ya que en un centro TIC deberá ser el facilitador del uso de recursos y herramientas que el alumnado necesita para la elaboración de nuevos conocimientos y destrezas. Por ello aparecen nuevas funciones y perfiles derivados de estos nuevos escenarios de aprendizaje: profesorado utilizando herramientas TIC, tele-tutores y tele-tutoras, consultores on-line y consultoras on-line, profesorado desarrollador de contenidos para plataformas de teleformación, dinamizadores y dinamizadoras de las TIC en los centros... etc. Siendo un buen indicador la acreditación de los conocimientos asociados a estos perfiles, mediante pruebas de certificación adecuadas a los distintos niveles del Modelo de Madurez Tecnológica.

- La implicación del resto de los agentes de la Comunidad Educativa (padres y madres, ayuntamiento, empresas, etc.) acorde con una nueva concepción del proceso educativo.

En consecuencia el Modelo define para los diferentes niveles el grado de participación, y la forma de su acreditación, de cada uno de los agentes en el citado proceso educativo de cara a alcanzar la excelencia.

La presente Orden al aprobar el Modelo de Madurez Tecnológica de Centro Educativo delimita los términos

tza Sistemako ikastetxeek IKTen arloko heldutasun-ereduan parte hartzeko bete behar dituzten baldintzak, maila bakoitzeko egiaztatze-agiriak lortzeko betebeharrak, eta, azkenik, egiaztapenaren ziurtagiria eta egiaztapen horri eutsiko zaiola bermatzen duen ziurtagiria, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emana.

Eta, horregatik guztiagatik,

XEDATU DUT:

**1. artikulua.**– Ikastetxeetako teknologia-heldutasunaren eredia onestea.

Ikastetxeetako teknologia-heldutasunaren eredia onetsi da.

Ereduaren egiturak bost maila ditu. Maila bakoitzean, ikastetxeetako prozesuen digitalizazio-maila handituz doa, eta, aldi berean, mailak berak ezartzen ditu goragoko heldutasun-mailak erdiesteko hezkuntza-komunitate osoak jarraitu behar dituen ildoak teknologiei, prozesuei eta gaitasunei dagokienez.

Honako giltzarri hauek definitzen dituzte maila horiek:

1. maila: «Azpiegiturak eta gaitasuna»: alde batetik, ikastetxeek badituzte Premia planak egun eskaintzen dituen azpiegiturak, eta, bestetik, irakasleen % 80k «IKTen arloan oinarritzko gaitasunak ditu». Irakaskuntza- eta kudeaketa-materiala digitalizatzen hasia da maila honetan.

2. maila: «Erabilera»: ikastetxean eskuragarri dauden informatika-baliabideak (IKT Ikasgelak) aldizka erabiltzen dituzte irakasleek ikasgelan. Ikasgela bakoitzak ordenagailu bana izango du. Ikasgelatik kanpo, hezkuntza-komunitatearekiko harremanetan, teknologia berriak baliatzen hasiak dira prozesuetakoren batean (adibidez, posta elektronikoa erabiltzea hitzik gabeko komunikazioetan, zuzendaritzaren eta irakasleen artean, irakasleen artean, nahiz zuzendaritzaren eta familien artean). Nolanahi ere, denbora batez, ohiko bideekin batera erabiliko dituzte.

3. maila: «Ikasgela digitalizatzea»: ikasgai bakoitzera, IKT eta internet usu erabiltzen hasiak dira ikasgelan; ikasgeletan badaude internet egunero erabiltzeko behar diren teknologia-baliabideak. Ikasgelatik kanpo, ikasleek eta familiek aukera dute ikastetxeari nahiz ikasgaiei buruzko informazioa on-line eskuratzeko (adibidez, ikastetxearen web orriaren bidez, ikasgelaren web orriaren bidez, buletin elektronikoen bidez...). Informazioa noranzko bakarrekoa da funtsean. Hezkuntza-komunitateak ikastetxeko ikasgelak eta IKT baliabideak erabiltzeko aukera izan dezan, ikastorduetatik kanpo ere ordutegi zabala eskaintzen da.

4. maila: «ikasgela birtual bihurtzea»: ikasgelan, ikasleak gaitzeko prozesua nonahikoa eta iraunkorra izaten hasia da, eta ikastorduez gaindi doa. Ondorioz, ikas-

en que los centros educativos del Sistema Educativo Vasco pueden participar en el Modelo de Madurez TIC; los requisitos de acceso a las diferentes certificaciones de acreditación de nivel y, finalmente, crea la certificación que, otorgada por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, reconocerá tal acreditación y su mantenimiento.

Por todo ello,

DISPONGO:

**Artículo 1.**– Aprobación del Modelo de Madurez Tecnológica de Centro Educativo.

Se aprueba el Modelo de Madurez Tecnológica de Centro Educativo.

El Modelo se estructura en cinco niveles que gradualmente van aumentando el nivel de digitalización de los procesos de un centro educativo a la vez que marcan la línea a seguir en cuanto a tecnologías, procesos y capacidades de todos los agentes de la comunidad educativa, para alcanzar los siguientes niveles de madurez tecnológica.

Las características claves definitorias de los señalados niveles son:

Nivel 1: «Infraestructuras y Capacitación»: en este nivel el Centro dispone de las infraestructuras actuales del plan Premia, y del 80% de profesorado con «Competencias TIC básicas de profesorado». También se comienza con la digitalización de material docente y de gestión.

Nivel 2: «Utilización»: dentro del aula, los recursos informáticos disponibles en el centro (Aulas TIC) son utilizados periódicamente por el profesorado. Todas las aulas dispondrán de un ordenador. Fuera del aula la relación con la comunidad educativa, comienza a hacerse a través de las nuevas tecnologías, en alguno de los procesos (por ejemplo: uso del correo electrónico en las comunicación no verbales «dirección-profesorado», «profesorado-profesorado» y «dirección-familias»), aunque convivan temporalmente con soluciones tradicionales.

Nivel 3: «Digitalización del Aula»: dentro del aula, el uso de las TIC y de Internet en particular en cada asignatura, se generaliza, y las aulas disponen de una dotación tecnológica permanente que permite su utilización diaria. Fuera del aula, el alumnado y las familias pueden acceder on line a determinada información del Centro o de las propias asignaturas (por ejemplo, a través de la web del centro, web de la clase, boletines electrónicos...). La información es básicamente unidireccional. El Centro tiene un amplio horario de apertura de las aulas y recursos TIC fuera del horario lectivo, a disposición de la comunidad educativa.

Nivel 4: «virtualización del aula»: dentro del aula, el proceso de capacitación de los alumnos y de las alumnas comienza a configurarse como un proceso ubicuo y

gela kanpora ireki eta ikasleen nahiz irakasleen arteko eztabaida iraunkorra piztu da, hezkuntza-plataformak erabiliz (urruneko informazio-plataformak, blogak, extranet, wikiak...). Ikasgelatik kanpo, ikastetxeak badu interneten bidez irits daitekeen hezkuntza-plataforma bat, eta, hari esker, hezkuntza-komunitateko gainerako eragileekin bi noranzkoko komunikazio iraunkorra lortzen da.

5. maila: «ikastetxea birtual bihurtzea»: ikasgelan, ikasleak gaitzeko prozesua nonahikoa da guztiz, eta urruneko prestakuntza-plataforma erabiltzen da prozesuaren euskarri-tresna gisa. Ikasgelatik kanpo, ikastetxea 24 orduz dago irekita interneten, eta, horrenbestez, hezkuntza-komunitatea gaitzeko eragile bihurtzen da, baita familiak eta are gizarte osoa hartzen duen gizarte-sarearen dinamizatzaile eta sustatzaile ere.

## **2. artikulua.**– Edukia.

Ikastetxeek IKTren arloan dituzten teknologia-baliabideen araberakoak nahiz baliabide horiek erabiltzeko trebezien araberakoak izango dira IKTren arloko heldutasun-mailak. Maila bat erdiesteko, beharrezkoa izango da aurreko maila egiaztatua izatea.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web orrian (<http://www.hezkuntza.net>) xeheki azalduta daude bideratu beharreko ekintza eta baldintza guztiak.

## **3. artikulua.**– Ziurtagiria eta egiaztapen-zigilua.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarri ditu IKTren arloko heldutasuna egiaztatzeko ziurtagiria eta haren baitako 5 mailak egiaztatzeko zigiluak.

Unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko nahiz pribatuek lortu ahal izango dituzte IKTren arloko heldutasun-ziurtagiriak.

## **4. artikulua.**– Egiaztatze-prozedura.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emango du ziurtagiria, baldin eta ikastetxeak agindu honetan ezarritako baldintzen barruan, aginduzko auditoria gainditu badu.

European Software Institute Fundazioak kudeatutako IT txartela aplikatuz emango zaie irakasleei ziurtagiria.

Ziurtagiria lortu duten ikastetxeek jarraipen-auditoriak gainditu beharko dituzte aldizka, erdietsitako heldutasun-mailari eusten diotela egiaztatzeko.

**5. artikulua.**– Ziurtagiria lortu duten ikastetxeen zerrenda ofiziala.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aldizka argitaratuko du IKTren arloko heldutasun-maila bakoitzeko ziurtagiriak jaso dituzten ikastetxeen zerrenda.

## **6. artikulua.**– Egiaztapen-zigiluaren erabilera.

Ikastetxeek hitz hauek dituen zigilua erabili ahal izango dute beren logotipoetan eta barne- nahiz kanpo-

permanente, más allá del horario lectivo, por lo que a través del uso de plataformas educativas (plataforma de tele formación, blogs, extranet, wikis...) el aula se abre al exterior, y al debate permanente entre el alumnado y el profesorado. Fuera del aula, el Centro dispone de una plataforma educativa accesible a través de Internet, que permite una comunicación permanente y bidireccional con el resto de agentes de la comunidad educativa.

Nivel 5: «virtualización del centro»: Dentro del aula, el proceso de capacitación del alumnado es totalmente ubicuo y se utiliza una plataforma de tele formación como herramienta de soporte al mismo. Fuera del aula, el Centro está abierto 24 horas a través de internet, convirtiéndose en el motor de la capacitación de la comunidad educativa y en promotor y dinamizador de una red social que abarca no sólo a las familias, sino a la sociedad en general.

## **Artículo 2.**– Contenido.

Los diferentes niveles de Madurez TIC se corresponderán con los recursos tecnológicos y las habilidades de utilización de los mismos que los Centros educativos posean. La acreditación de un nivel será condición previa para acceder al nivel inmediato superior.

El desarrollo completo de las acciones y sus requisitos figuran en la Página Web del Departamento de Educación, Universidades e Investigación (<http://www.hezkuntza.net>).

## **Artículo 3.**– Certificación y sello acreditativo.

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación establece la certificación de Madurez TIC y el sello acreditativo de sus 5 niveles.

Podrán acceder a las certificaciones de Madurez TIC tanto los centros educativos públicos como concertados de enseñanza no universitaria.

## **Artículo 4.**– Procedimiento de certificación.

La certificación se expedirá tras la superación de la preceptiva auditoría, según los requisitos establecidos en esta Orden por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

La acreditación del profesorado se realizará a través de la aplicación de IT txartela gestionada por European Software Institute.

Los Centros que hayan obtenido la certificación serán objeto de auditorías de seguimiento que se realizarán periódicamente para la acreditación del mantenimiento del nivel de madurez alcanzado.

## **Artículo 5.**– Listado oficial de Centros certificados.

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación publicará, periódicamente, la relación de los Centros educativos certificados en los diferentes niveles de Madurez TIC.

## **Artículo 6.**– Utilización del sello acreditativo.

Los centros educativos podrán utilizar en sus logotipos y documentación interna y externa un sello con la

agiritan: ikastetxe honek egiaztatua du IKT arloko X. heldutasun maila.

Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak korporazio-nortasunaren inguruan onesten dituen arauak jarraituz erabiliko da zigilua.

**7. artikulua.**– Kudeaketa-organoa.

Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak kudeatzen du ikastetxeetako teknologia-heldutasunaren eredu, informazioaren eta komunikazioaren teknologien arlokoa. Baldintza espezifikoak ezarriko ditu ikastetxe guztiek IKTren arloko heldutasun-mailetan parte har dezaten, ziurtagiria lor dezaten, beren horretan iraun dezaten eta hobetu dezaten.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 1a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,  
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

leyenda de: Centro acreditado en el nivel n de madurez TIC.

La utilización de tal sello se adecuará a las normas de identidad corporativa que se aprueben por la Dirección de Innovación Educativa.

**Artículo 7.**– Órgano de gestión.

La Dirección de Innovación Educativa es el órgano de gestión de las actuaciones relativas al Modelo de Madurez Tecnológica de Centro Educativo en Tecnologías de la Información y Comunicación y en su actuación favorecerá, mediante el establecimiento de condiciones específicas, la participación, certificación, permanencia y superación de los Centros en los distintos niveles de Madurez TIC.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de abril de 2009.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,  
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.